

Berrobi

UDALBATZARRERAKO DEIALDIA

Berrobiko Udalak 2016ko apirilaren 13an iluntzeko 20:00etan Udaletxeko Pleno Aretoan egingo duen Ezohiko Udal Batzarrera dei egiten dizut.

AZTERGAIAK

- 1) "Proyecto de ejecución de la cubierta de la pista deportiva de la Escuela San Andrés de Berrobi" onartzea.
- 2) Baldintza administratibo berezien agiria onartzea "Proyecto de ejecución de la cubierta de la pista deportiva de la Escuela San Andrés de Berrobi" lanak kontratatzeko.
- 3) Kreditu gehigarrien bidezko kreditu aldaketaren 2016-KALD-000001-00 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena.
- 4) Berrobiko Baratza Parkea proiektua kudeatzeko Berrobiko Udala eta Ekogunea arteko Lankidetzaren Hitzarmena.
- 5) Berrobiko baratze ekologikoak adjudikatzeko eta kudeatzeko Araudia hasierako izaeraz onartzea.

Berrobi, 2016ko apirilak 7

ALKATEAK

Izp.: Joseba Iñigo Aiertza Mujika

CONVOCATORIA PARA EL PLENO

Convocatoria para la Sesión Extraordinaria del Ayuntamiento de Berrobi, que se celebrará en esta Casa Consistorial el día 13 de abril de 2016 a las 20:00 horas.


ORDEN DEL DIA


- 1) Aprobación del "Proyecto de ejecución de la cubierta de la pista deportiva de la Escuela San Andrés de Berrobi"
- 2) Aprobación del Pliego de Clausulas administrativas particulares para la contratación de las obras del "Proyecto de ejecución de la cubierta de la pista deportiva de la Escuela San Andrés de Berrobi"
- 3) Propuesta de aprobación del Expediente 2016-KALD-000001-00 de modificación de créditos, en la modalidad de créditos adicionales.
- 4) Convenio de colaboración entre Ayuntamiento de Berrobi y Ekogunea para la gestión del Parque de huertas de Berrobi.
- 5) Aprobación inicial del Reglamento para la adjudicación y gestión de las Huertas Ecológicas de Berrobi.

Berrobi, a 7 de abril de 2016

EL ALCALDE

Fdo.: Joseba Iñigo Aiertza Mujika





Berrobi

UDALBATZARRAREN AKTA

Data: 2016ko apirilak 13

Hasierako ordua: 20:00

Amaiera ordua: 20:50

Lekua: Berrobiko udaletxeko Batzar-aretoa.

Bertaratuak:

Joseba Iñigo Aiertza Mujika, Alkatea
Jose Odriozabala Garmendia, zinegotzia
Erlantz Allur Aramburu, zinegotzia
Igone Saldias Uranga, zinegotzia
Larraitz Esnaola Etxeberria, zinegotzia

Ana Larrarte Kerejeta, idazkaria.

Alkateak bilerari hasiera eman eta gai-zerrendako puntuei heltzen die.
Esan-eginak eta erabakiak

1) "BERROBIKO SAN ANDRÉS IKASTETXEKO KIROL-PISTAN ESTALKIA EGITEKO PROIEKTUA" ONARTZEA.


Ikusita 2016ko otsailaren 23ko ebazenez Berrobiko San Andrés Ikastetxeko Kirol-pistan estalkia egiteko proiektua erredaktatzeko lanak Injelan, S.L. enpresari esleituak izan zirela.

Ikusita Injelan, S.L. enpresak 2016ko apirilaren 6an aurkeztu duen proiektua eta udal arkitektoak bere edukina aztertu duela, Gobernu Batzar honek, aho batez

ERABAKI DU:

Lehena.- Onartzea "Berrobiko San Andres Ikastetxeko kirol pistan estalkia egiteko Proiektua" Injelan, S.L. enpresak 2016ko apirilean idatzia.

Bigarrena.- Inbertsio honetarako 177.610,99 €-ko gastua onartzea, aurrekontuako 1 0000.682.320.00.01 sailaren kontura.



Berrobi

2) BALDINTZA ADMINISTRATIBO BEREZIEN AGIRIA ONARTZEA “BERROBIKO SAN ANDRES IKASTETXEKO KIROL PISTAN ESTALKIA EGITEKO PROIEKTUA” LANAK KONTRATATZEKO.

Ikusita “Berrobiko San Andres Ikastetxeko kirol pistan estalkia egiteko Proiektua”ko obrak kontratatzeke hasi den espedientea eta prestatuu den baldintza agiria.

Gauzak horrela, Udalbatzak, ahobatez,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea, Berrobiko San Andres Ikastetxeko kirol pistan estalkia egiteko Proiektuko lanak kontratatzeke espedientea.

Lizitazio-tipoa hau da : 146.942,14 € (+ BEZ).

Adjudikazio modua prozedura irekiarena izango da.

BIGARRENA.- Baliatzea 146.942,14 € (+ BEZ)ko gastua 1 0000.682.320.00.01 2016 partidaren kargura.


HIRUGARRENA.- Onartzea Klausula administratibo partikularren plegua, aipameneko obrak kontratatzeke.

LAUGARRENA.- Kontratatzeke prozedura irekitzea. Horretarako lizitazio-iragarkia argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko WEB orrian.

3) KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZKO KREDITU ALDAKETAREN 2016-KALD-000001-00 ZENBAKIDUN ESPEDIENTEA ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeke espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Idazkari kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.



Berrobi

Gaia aztertu ondoren, Udaltzarak, bozketa egin eta gero, legezko gehiengoz, honako hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Onartzea honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
6	INBERTSIO ERREALAK	78.231,71
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		78.231,71


FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
6 (GASTUAK)	INBERTSIO ERREALAK	(-)7.154,26
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	71.077,45
GUZTIRA		78.231,71

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

4)BERROBIKO BARATZA PARKEA PROIEKTUA KUDEATZEKO BERROBIKO UDALA ETA EKOLOGUNEA ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA.

Berrobiko udalak bere jabetzakoa den Berrobizar baserriko sailtan herri baratze antolatu proiektuak Kutxa Ekogunearekin harremanetan jarri da, honek baratze parke sarea izeneko baratze ekologikoen sarea bultzatzen ari delako Gipuzkoa.



Berrobi

Kutxa Ekoguneak aurlezturiko proposamena aztertu eta gero, Udalbatzak aho batez

ONARTZEN DU

Lehena.- Berrobiko Udaia eta Kutxa Ekoguneak Berrobiko Baratze Parkea proiektua onartu eta bukaeraraino gauzatzeko Hitzarmena onartzea (I.Eraskina).

Bigarrena.- Alkate jauna Hitzarmena sinatzeko ahalmentzea.

5) BERROBIKO BARATZE EKOLOGIKOAK ADJUDIKATZEKO ETA KUDEATZEKO ARAUDIA HASIERAKO IZAERAZ ONARTZEA.

Ikusita aurreko puntuan jaso dena eta Berrobiko herri baratze parkeko lursailak esleitu eta kudeatzeko araudi baten beharra, idazkariak Araudiaren zirriborroaren edukina azaltzen du.

Eta aztertu ondoren, Udalbatzak, aho batez

ERABAKI DU:


Lehena.- Berrobiko Baratze ekologikoak adjudikatzeko eta kudeatzeko araudia behin behineko onartzea (II.Eraskina)

Bigarrena.- Informazio publikoan jartzea aipatutako araudia eta gutxienez 30 eguneko epean, erreklamazio zein iradokizun aurkezteko. Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Hirugarrena.- Inongo erreklamazio zein iradokizunik aurkeztu ez bada, akordioa behin betiko onartu dela ulertuko da.

Eta, aztertze bestelako gairik ezean, Udalbatza amaitutzat eman da, eta jorratutako gaiak eta hartutako erabakiak aktan jaso daitezzen, nik, idazkariak, agiri hau luzatu dut alkatearen oniritziarekin.

O. E.
ALKATEA



IDAZKARIA

